



ikastunitatea

DENDA ZABALDU DUT

Aurkibidea

1. Irakaslearentzako oharrak	2.or
2. Bezeroarekin hizketan	
Denda zabaldu dut	3-4.or
3. Dendetako gauzak	
Haxe da nire denda	5-6.or
4. Finkatuz	
A. Kaixo, egun on!	7.or
B. Hortxe dago!	8.or
5. Dendariaren txokoa	
A. Errotuluak	9.or
B. Bisita-txartela	10.or
6. Eranskinak	
6.1. Transkripzioak	11-12.or

1. Irakaslearentzako oharrak

Dendariei zuzenduta dagoen ikasmaterial honetan, ikasleek eguneroko jardunean euskara erabiltzen hastea nahi dugu. Hori dela-eta, helburu praktikoa dute hemen bildu ditugun atazek eta jarduerak.

Unitate guztiek eskema berari erantzuten diote: alegia, ikastaldean bertan lantzeko atazek eta jarduerak osatuak daude. Hala ere, berezi samarra izango da ikasmaterial hau, bertan topatuko baititu ikasleak ikasgelatik kanpo bere kaxa lan egiteko hainbat jarduera.

Ikus dezagun, beraz, lehen unitate hau nola dagoen osatua:

- **Bezeroarekin hizketan** atalak dendariaren eta bezeroaren arteko elkarriketak jasoko ditu.
Denda zabaldu dut jardueran, dendaren azalpen xumeak bildu dira, baita produktuen izenak eta dendan izaten duten kokapena ere. Ikasleek, elkarriketen haria ulertzeko estrategiak garatzeaz gain, azalpen horien inguruko hainbat datu identifikatu beharko dituzte.
- **Dendetako gauzak** sailean dendari lotutako hiztegi berezitua landuko da.
Denda-motak aurkeztuko zaizkio ikasleari irudien bidez, eta, bakoitza dagokion izenarekin lotu ondoren, ikasle guztiek lan egiten duten dendaren jarduera zein den azalduko diote elkarri. Azalpen horretan gehiago sakontzeko, ikasleek dendetan egon ohi diren azpiegiturako gauzen izenak ikusi eta sailkatu egingo dituzte; eta, hiztegi hori erabiliz, gainontzeko ikaskideei euren denda nolakoa den azaltzen saiatuko dira oso modu eskematikoan.
- **Finkatuz** deritzon sekzioak ikastunitatean zehar ikusitako hainbat egitura azaldu eta lantzeko aukera emango du. Ikasleek euren kaxa lan egiteko bereziki diseinatuta dago; hala ere, komenigarria litzateke irakasleak gidaritza eskaintzea eta ariketak egiterakoan sor dakizkiekeen zalantzez beharrezko azalpenak ematea.
Bezeroari agur-mota egokiak egiteko aholkuak landu ondoren, ikasleek zenbait hutsune osatuko dituzte, aurreko aholkuei jarraituz.
Gainera, produktuen kokapenez galdezka ari diren bezeroei entzuteko parada dago; hartara, ikasleek irudian identifikatu beharko dituzte bezeroak bilatzen ari diren produktuak, dendariaren azalpenetan oinarrituta. Eta alderantzizko prozesuan, ikasleek, irudian oinarrituta, kokapena adierazteko hainbat hitzen eta esamolderen gaztelaniazko eta euskarazko ordainak lotuko dituzte.
- **Dendariaren txokoa** atalak dendako hainbat elementu euskaratzen hasteko aholkuak jasoko ditu. Aurreko atala bezala, hau ere erraz garatu dezake ikasleak bere kaxa; dena den, garrantzitsua litzateke ikasleak irakaslearen laguntza edukitzea, bere dendako zerbait euskaratu nahi izanez gero.
Hainbat ezaugarri aztertu ondoren, liburuko adibideetako errotulu nagusiak zuzendu egingo dituzte ikasleek. Bestelako errotuluak irudi bidez ezagutu ostean, irudi bakoitza dagokion euskarazko adierazpenarekin lotu beharko dute identifikazio azkar batean.
Ondoren, ereduaren ematen den informazioa sailkatu, aholku labur batzuk irakurri eta, azken hauek irizpidetzat hartuta, ikasle bakoitzak bere dendako bisita-txartela aztertu eta euskaratuko du.
- **Eranskinak** deituriko arloan transkribapenak jasoko dira gehienbat; baina ikasleentzako fitxak ere bai, egoerak eskatzen duenean.

2. Bezeroarekin hizketan

DENDA ZABALDU DUT

75'

Helburuak:

- Nork bere burua eta dendaren izena aurkeztea.
- Entzundako elkarrizketan oinarrituta, denda-motak, produktuak eta azken hauen kokapena identifikatzea.

Zertan den:

- Irudian azaltzen den aurkezpena errepikatuko dute ikasleek, nork bere dendaren izena azalduz eta ikaskideenak paperean jasoz. Ondoren, entzundako elkarrizketa batean hainbat datu identifikatu beharko dituzte. Azkenik, bakoitzak egindakoa bere etxean praktikatuko du, antzeko egoerak entzunez eta hainbat datu identifikatuz.

PROZEDURA

Atazaurrea

- Liburuko irudia ikusi eta bertako esaldiaren esanahia bereganatu ondoren, ikasle bakoitzak bere izena eta dendarena esango ditu. Ikaskideek, bien bitartean, liburuko taulan jasoko dituzte datu horiek. **(10')**

Ataza

- Entzun beharreko elkarrizketaren **(CDaren 1. pista)** gaia azalduko diezu ikasleei: dendariak denda zabaldu berri du eta bezero batekin hitz egiten dihardu, dendari buruzko azalpenak emateko. **(5')**
- Entzun ostean, irudien artean aukeratu behar dute zein denda-motari buruz aritu diren elkarrizketan. **(5')**
- Ikasleek produktu ezagunen izenak liburuko taulan jasoko dituzte; segidan, bakoitzari irakurraraziko diozu jasotakoa. Lagun iezaiezu harrapatu ez dituztenak aurkitzen, pista txikiak emanez. **(10')**
- Elkarrizketa berriro entzunaraziko diezu, bezeroak zein produktu erosi nahi duen ulertu eta esan dezaten: bezeroa bilatzen ari dena aukeratu behar dute ikasleek produktuen artean. **(5')**
- Produktuaren kokalekua adierazteko, dendariak erabili duen esaldia aukeratuko dute zerrendatik. **(5')**

Feedbacka

- Ikasleek berriro entzungo dute elkarrizketa, egin dutena egiaztatzeko. **(5')**

Zuzenketa-orria

Paper-denda

Liburuak

Hor, apaletan

ETXEAN

- Jarduera hau ikasgelan egindakoaren errepikapena da. Izan ere, gelan egin dutenaren antzekoa egiteko proposatzen zaie ikasleei liburuan. Eman beharreko pausoak hauexek dira:
 - 1) Elkarrizketak **(CDaren 2. eta 3. pista)** entzun bitartean, irudiak ikusi.
 - 2) Irudiak dagokien testuarekin lotu.

- 3) Elkarrizketak berriro entzun, osatu dutena egiaztatzeko.
- 4) Entzundako produktuak eta dendako azpiegiturako gauzen izenak taula batean idatzi.
- 5) Egindakoa alderatu liburuan dauden emaitzekin. **(30')**

Oharra: Adostu ikasleekin egun bat, egindakoa gelan bertan azaldu dezaten; hartara, ilun samar geratu zaizkien atalak (egituraren bat, hiztegia...) argitzeko aukera izango dute.

3. Dendetako gauzak

HAUXE DA NIRE DENDA

90'

Helburuak:

- Denda nolakoa den eta dituen elementuak azaltzea.
- Irudietako denden jarduerak identifikatzea eta nork bere dendaren jardura zein den azaltzea.
- Dendaren jardura bakoitza saltzen dituen produktuekin lotzea.
- Hainbat denda-motaren gaztelaniazko ordainak ematea.
- Dendako azpiegitura elementuak sailkatzea.

Zertan den:

- Ikasleek euren dendei buruzko informazioa emango diote elkarri: zein denda-mota den, nola duten antolatuta... Horretarako, hiztegiarekin lotuta dauden bi jardura proposatu dira: lehenengoan, irudietako denden jardura eta saltzen diren produktuak aukeratzeaz gain, produktu horien gaztelaniazko ordainak eman behar dituzte; bigarrenean, azpiegitura elementuak sailkatutakoan, bakoitzak bere dendan dudenak azalduko ditu.

PROZEDURA

1

Ataza

- Herriko dendariak katalogoa egin behar dutelako aitzakian, irudietako denden jardura zein den esateko eskatuko zaie ikasleei. Lehenengoz, irudiak banan-banan ikusita, zerrendako izenen ondoan idatziko dute irudiaren zenbakia. Laguntza gisa, denda bakoitzean saltzen diren hainbat produktu dituzte idatzita, lotura errazagoa egingo dutelakoan. Ondoren, gaztelaniazko ordainak idatziko dituzte ondoko zutabeen. (15')

Feedbacka

- Ikasle batek idatzitakoa ozenki irakurriko du eta ikaskideek ados dauden ala ez adieraziko dute. (10')

Zuzenketa-orria			
irudia	denda-mota	gaztelaniaz	produktuak
6	zapata-denda	zapatería	zapatak, oinetakoak
11	argazki-denda	tienda de fotos	argazkiak, kamerak
17	argi-denda	tienda de iluminación	lanparak, argiak
22	arrandegia	pescadería	arraina
27	bizikleta-denda	tienda de bicicletas	bizikletak
1	burdindegia	ferretería	kazolak, iltzeak
18	dekorazio-denda	tienda de decoración	
7	etxetresna elektriko denda	tienda de electrodomésticos	etxetresna elektrikoak
28	gaztandegia	quesería	gazta, esnea
12	ardandegia	vinotería	ardoa, edariak
23	harategi-urdaitegia	carnicería-charcutería	haragia, txorizoa
2	informatika-denda	tienda de informática	ordenadoreak
13	iturgindegia	fontanería	iturriak, komunak
8	jantzi-denda	tienda de ropa	arropa, jantziak
24	loradenda	floristería	loreak, landareak
19	fotokopia-denda	tienda de copias	kopiak
3	lurrin-denda	perfumería	lurrinak, makillajeak
14	koltxoi-denda	colchonería	koltxoiak, oheak
26	jostailu-denda	juquetería	jostailuak
9	kirol-denda	tienda de deportes	kirol-arropak

4	lentzeria, mihise-denda	lencería	azpiko arropa, pijamak
15	liburu-denda	librería	liburuak
20	optika	óptica	betaurrekoak, lentilak
10	okindegia-gozotegia	panadería-pastelería	ogia
5	pintura-denda	tienda de pinturas	pinturak, brotxak
16	telefono-denda	tienda de teléfonos	telefonoak
25	estankoa	estanco	tabakoa
21	fruta-denda	frutería	frutak, barazkiak

Atazaostea

- Ikasle bakoitza, bere dendaren jarduera idatzi ostean, ikaskideen dendan jarduerak asmatzen saiatuko da, inori ezer galdetu gabe eta ikaskidearen itxurari begiratu. Ondoren, bakoitzak bere dendaren jarduera esango du, ea zenbat asmatu dituen jakiteko. **(10')**

2

Atazaurrea

- Aurreko atalean entzundako elkarrizketak ekarriko dizkiezu gogora. Liburuko esaldiak irakurri eta gero, dendaren kokalekuak adierazten dituzten hitzak azpimarratzeko esango diezu. **(10')**
- Hitzak identifikatu ondoren, bakoitza zein irudiri dagokion adieraziko dute, esaldiaren zenbakia(k) irudiaren azpian idatziz. **(5')**
- Horrelako produktuak zein denda-motatan aurki daitezkeen aukeratuko dute ikasleek irudien artean, azpian izen zuzena idatziz. **(5')**

Zuzenketa-orria			
apalak	mostradoreak	hozkailua	aldagelak
2, 4	1	5	3
paper-denda	janari-denda	jantzi-denda	
1, 2	3,5	4	

Ataza

- Hurrengo irudietan dendetan aurki daitezkeen hainbat elementu dituzte sailkatzeko. Taulako irizpideen arabera kokatu behar dira izenak: biltzeko, neurtzeko, erakusteko, dekoratzeko edota egitura osatzeko diren. **(10')**

Feedbacka

- Ikaskideekin elkartzeko eskatuko diezu, bakoitzak egin duena alderatzeko. **(5')**

Gramatika eta diskurtsoa

- Ikusitako hiztegia lantzeko tenorean gaude. Ikasle bakoitzak, bere dendaren krokis txiki bat egiteaz batera, ikaskideei emango die azpiegiturako elementuen berri. **(15')**
- Ikaskideek aipatutako gauzetatik ezezagunak jasoko ditu ikasle bakoitzak eta gaztelaniara itzuliko. **(5')**

4. Finkatuz

Ikasleei ikastunitatean zehar landu diren hainbat egituratan arreta jarraraztea da atal honen helburua. Ezinbestekoa da, beraz, ikasleek jakitea hemen proposatzen diren jarduerak euren kaxa egiteko modukoak direla eta, era berean, ariketak egiteko erreferentzia ikasgelan egindako lanean bilatu behar dutela. Dena den, irakaslearen laguntza derrigorrezkoa izango da, sortu dakizkiekeen zalantzei erantzun egokia emateko.

A. KAIXO, EGUN ON!

15'

Helburuak:

- Bezeroari egin ohi zaizkion agurrak ezagutzea.
- Euskarazko eta gaztelaniazko agurrak alderatzea.
- Egunaren une desberdinetarako agur egokiak aukeratzea.

Zertan den:

- Egunean zehar erabiltzen diren agurrak ezagutu ondoren, ikasleek euren bezeroekin erabiliko dituztenak praktikatu egingo dituzte, kasu bakoitzean egokienarekin hutsuneak betez.

PROZEDURA

Ataza

- Ikasleak agurrak egiteko ohiko formak irakurriko ditu eta gaztelaniazko ordainekin alderatuko.
- Erlojuetan ezarrita dauden orduetan oinarrituta, agur-mota egokia kokatu beharko du hutsuneetan.

Helburuak:

- Bezeroari bilatzen ari den zerbait non dagoen azaltzea.
- Entzun eta irakurritako testuaz jabetuta, aukera egokia egitea.
- Entzundakoa irudian identifikatzea.
- Kokapena adierazteko euskarazko eta gaztelaniazko formak alderatzea.
- Irudian oinarrituta, esaldiak osatzea.

Zertan den:

- Galdezka dabilen bezeroak zein produktu aurkitu nahi dituen eta non dauden aukeratu beharko dute ikasleek. Ondoren, hutsuneak betez adieraziko dute irudiko gauzak non dauden, kokapena adierazteko erabiltzen diren hitzak gogoan hartuta.

PROZEDURA**Ataza**

- Bezeroak nahi dituen produktuak aukeratuko ditu ikasleak, pasartea (**CDaren 4. pista**) entzun ondoren. **(10')**
- Produktuak non dauden markatuko du irudian. **(5')**
- Kokapenak azaltzeko euskarazko formak gaztelaniazkoekin lotuko ditu irudiaren laguntzarekin. **(5')**
- Kokapenak azaltzeko esaldiak osatuko ditu, falta diren hitzak idatziz. **(5')**

5. Dendariaren txokoa

Dendara egokitzeko eredu baliagarriak aurkituko ditu ikasleak atal honetan. Jarduera horiek nork bere kaxa egitekoak badira ere, egokitzapenak egitean topatuko ditu ikasleak eragozpen gehien. Ikasleari eredu egokiak aukeratzen laguntzea izango da irakaslearen lana.

A. ERROTULUAK

30'

Helburuak:

- Dendaren errotulu nagusia osatzeko aholkuak ezagutzea.
- Herriko establezimenduen errotuluen idazkeraz ohartaraztea.
- Errotuluek izaten dituzten ohiko akatsak zuzentzea.
- Nork bere dendako errotuluez jabetzea eta aldaketak proposatzea.

Zertan den:

Errotuluetak osagaien idazkera ezagutu eta gero, hainbat adibide aztertuko dituzte, akatsak zuzentzearen. Beste hainbeste egingo dute inguruko dendetako errotuluekin eta baita euren dendakoarekin ere. Ondoren, beste mota bateko errotuluak dituzten irudiak dagokien testuarekin lotzen saiatuko dira.

PROZEDURA

1

Ataza

- Dendetako errotuluetan idazteko hainbat arau ikusi ondoren, adibideetako errotuluak aztertuko ditu ikasleak, behar diren aldaketak proposatuz.
- Beste hainbeste egingo du inguruko dendetako errotuluekin: nola dauden idatzita jasoko du, beharrezko aldaketak proposatuz.
- Nork bere dendaren errotuluan jartzen duena idatziko du eta ikusitakoaren arabera aldaketak egingo dizkio. (15')

2

Ataza

- Denda barruan egoten diren hainbat errotulu irudietan ditu ikasleak. Irudiak dagokien testuarekin lotzen saiatuko da.
- Euren dendetako errotuluak aztertu egingo ditu, behar denean euskaraz jarriz edota moldaketak eginez. (15')

Helburuak:

- Euskarazko bisita-txartelak idazteko hainbat kontu ezagutzea.
- Bisita-txartel baten datuak identifikatzea eta sailkatzea.
- Nork bere dendako bisita-txartelaren idazkeraz jabetzea eta aldaketak proposatzea.

Zertan den:

- Bisita-txartel baten elementuak sailkatuko dituzte ikasleek. Ondoren, nork bere dendako bisita-txartela aztertu eta aldaketak proposatuko ditu.

PROZEDURA

Ataza

- Ikasleak, irudian duen ereduaz aztertzeaz batera, bertako informazioa taula batean sailkatuko du. **(10')**
- Hainbat laburdura euskaraz nola diren ikusita, bakoitzak bere dendako txarteletan horrelakoa nola ematen den aztertuko du, behar den kasuan aldaketak proposatuz. **(10')**

6. Eranskinak

6.1. Transkripzioak



CDaren 1. pista

Iraupena: 00:00:35

BEZEROA	Egun on!
DENDARIA	Baita zuri ere!
BEZEROA	Denda berria da, ezta?
DENDARIA	Bai, erakutsi egingo dizut.
BEZEROA	Oso ondo.
DENDARIA	Begira, hemen, mostradorean, gauza txikiak ditugu: boligrafoak, grapak, klipak... Hor, ezkerrean, paperak eta koadernoak; eta han, dendaren bukaeran, karpetak eta artxibategiak.
BEZEROA	Eta liburuak, non daude?
DENDARIA	Hor, apaletan.
BEZEROA	Eskerrik asko!
DENDARIA	Ez horregatik!



CDaren 2. pista

Iraupena: 00:00:18

BEZEROA	Arratsalde on!
DENDARIA	Baita zuri ere!
BEZEROA	Dendan begiratuko dut pixka batean.
DENDARIA	Bai, bai, lasai, begiratu nahi duzuna.
BEZEROA	Kamiseta hau gustatu egin zait. Probatzeko aldagela non dago?
DENDARIA	Zure ondoan.
BEZEROA	Bai, egia! Mila esker.
DENDARIA	Ez da ezer.



CDaren 3. pista

Iraupena: 00:00:19

BEZEROA	Aizu, barkatu, Coca-Cola non dago?
DENDARIA	Hor, gaitelen ondoan.
BEZEROA	Ez, ez dago. Hor Cola Caa dago
DENDARIA	A! Barkatu, gaizki ulertu dizut. Bai, begira, Coca-Cola hozkailu handian dago, jogurten gainean.
BEZEROA	Primeran! Eskerrik asko!
DENDARIA	Ez horregatik!



CDaren 4. pista

Iraupena: 00:00:18

BEZEROA	Azukrea, mesedez?
DENDARIA	Hor dago.
BEZEROA	Barkatu, non esan duzu?
DENDARIA	Hortxe, zure ondoan!
BEZEROA	Aizu, gatza non dago?
DENDARIA	Hemen, olioaren gainean.
BEZEROA	Eta xaboia?
DENDARIA	Xaboia? Hor, lixibaren azpian.